

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

**Kurtsoa / Curso:**

**2024ko urriaren 14tik azaroaren 22ra**

**Del 14 de octubre al 22 de noviembre del 2024**

**Izen-emateak / Inscripciones:**

**2024ko irailaren 9tik urriaren 4ra, biak barne**

**Del 9 de septiembre al 4 de octubre del 2024,  
ambos inclusive**

# ONLINE IKASTAROA HIZKUNTZA INKLUSIBOA CURSO ONLINE DE LENGUAJE INCLUSIVO

**EUSKARAZ ETA  
GAZTELERAZ, 25 ORDU  
(KREDITU 1)  
EN EUSKERA Y CASTELLANO, 25  
HORAS (1 CRÉDITO)**

[www.ehu.eus](http://www.ehu.eus)



**IDAZKARITZA NAGUSIA**

**SECRETARÍA GENERAL**



UPV/EHUko BERDINTASUNERAKO ZUZENDARITZA  
DIRECCIÓN PARA LA IGUALDAD DE LA UPV/EHU

Izen-emate datak:  
Irailaren 9tik urriaren 4ra

IKASTAROA:  
Urriaren 14tik azaroaren 22ra

**ONLINE IKASTAROA IKASLE,  
TEKAZEL ETA IIPENTZAT  
100 PLAZA**

**EUSKARAZ ETA GAZTELERAZ  
DOHAINIK**

**25 ORDU (KREDITU 1)**

**ARDURADUNA:**

**ENARA AGIRRE ARRIZABALAGA**

**EBALUATZAILE TALDEA:**

**IRATXE FRESNEDA DELGADO**

**ITXASO FERNÁNDEZ ASTOBIZA**

**ARANTZA GUTIÉRREZ PAZ**

**TALDE TEKNIKOA:**

**ENERITZ IBARGUENGOITIA BASTERRETXE**

---

# PROGRAMA

---

## HIZKUNTZA INKLUSIBOA

---

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

---

# Aurkibidea

1. SARRERA	3
2. NORI ZUZENDUA	3
3. HELBURUAK	3
4. PROGRAMA	4
5. EMAITZAK	4
6. DENBORA BANAKETA	5
7. METODOLOGIA	5
8. EBALUAZIOA	5

**Antolatzailea:** UPV/EHUko Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren Arloko Errektoreordetza eta berdintasunerako Zuzendaritza.

**Egileak:** June Fernández Casete (kazetaria eta Pikara Magazine aldizkariaren koordinatzailea) eta Lucía Martínez Odriozola (UPV/EHU-ko kazetaritza irakaslea eta Pikara Magazineko talde editorialeko kidea).

**Ilustrazioaren egilea:** Señora Milton

## 1. SARRERA:

Gaztelera edota frantsesez hizkuntzaren erabilera sexistari buruz ari garenean, genero maskulinoaren erabilera ezbaian jartzeko erronka izango da burura etorriko zaiguna. Gaztelaren kasuan, polemika ugari egon dira: Juan José Ibarretxe lehendakariak 'vascos y vascas' esaten zuelako, Bibiana Aido Berdintasun Ministroak 'miembra' esan zuelako, Espainako Errege Akademiak (RAE) hizkuntzaren erabilera ez sexistari buruzko gidak kritikatzeko zituen txosten bat argitaratu zuelako...

Baina zer gertatzen da euskararen kasuan? Egia da genero markak ez dituen hizkuntza batetan egunerokoan zailtasun gutxiago somatzen ditugula (ikasleak, bazkideak, abokatuak... neutroak baitira), baina horrek esan nahi du euskararen erabileran ez dela sexismorik ageri? Hausnarketa eta eztabaidarik ba al dago honen inguruan euskal kulturaren baitan?

Amelia Barquinek idatzitako eta Emakundek argitaratutako 'Euskararen erabilera ez sexista' gidaliburua irakurriz gero, argi izango dugu euskararen ere ba dagoela zer hausnartu eta zer aldatu. Gidaliburu horren erreferentzia izanda, ikastaro honetan zer gehiago ikasi dezakegu? Idazle, kazetari, bertsolari edota itzultzaileen ekarpenak jasoko ditugu, diagnosi zehatz bat egiteko eta adibide eta esperientzia praktikoak biltzeko.

Gu komunikatzaileak izanda, argi daukagu idatzizko hizkuntzak lengoaia grafikoarekin daukan harremana. Horri buruz ere arituko gara. Horrez gain, "hizkuntza ez sexista" baino "hizkuntza inklusiboa" kontzeptua erabiltzen dugu, sexismoaz aparte hizkuntzan islatzen diren beste diskriminazio ardatzak ere aintzat hartu nahi ditugulako: heterosexismoa, etnozentrismoa, arrazakeria edota kapazitismoaz ariko gara, eta genero binarismoarekin apurtzeko bideak ere aztertuko ditugu.

## 2. NORI ZUZENDUTA:

Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/ EHU) komunitateari zuzendua dago: irakasleak, ikasleak eta langileak.

## 3. HELBURUAK:

- Euskaraz hizkuntzaren erabilera ez sexista zaintzea beharrezkoa ez dela dioten aurreiritziak zalantzan jartzea.
- Euskaraz androzentrismoak hizkuntzan uzten dituen arrastoak identifikatzea.

- Ikus-entzuketako irudietan ere sexismoa identifikatzea, hizkuntzarekin duen harremanaz ohartuz.
- Sexismoaz gain, beste diskriminazio ardatzei lotutako hizkuntzaren erabilerari buruz hausnartzea: heterosexismoa, etnozentrismoa, arrazakeria edota kapazitismoa.
- Euskal kulturaren baitan euskararen erabilera inklusiboari lotutako eztabaidak eta ekimenak ezagutzea.

## 4. PROGRAMA:

### 1- Euskara sexista ote da?

- 1.1. Euskaraz ere androzentrismoaren islak.
- 1.2. Euskararen erabilera sexistari buruzko hausnarketak, erronkak eta ekimenak.
- 1.3. Hizkuntza eta irudien arteko harremana, emakumeen ikusgaitasuna indartzeko orduan.

### 2- Euskaraz dauden arazoak eta irtenbideak:

- 2.1. Emakume eta gizonak aipatzerakoan dauden asimetriak
- 2.2. Androzentrismoari lotutako euskararen erabilera desegokia (jauzi semantikoa, hitanoa...)
- 2.3. Emakume eta gizonen irudikapen grafikoan dauden asimetriak.

### 3- Sexismoaz haratago: hizkuntza inklusiboa erabiltzeko beharra eta gakoak:

- 3.1. Heterosexismoa eta genero binarismoarekin apurtzen
- 3.2. Aniztasun etnikoa eta funtzionala ikusarazteko gakoak
- 3.3. Aniztasuna irudietan.

## 5. EMAITZAK:

- Parte hartzaileek euskara sexista ez dela dioten aurreiritziak zalantzan jarriko dute.
- Euskal kulturaren eta euskalgintzan hizkuntza eta sexismoaren inguruko hausnarketa, eztabaida eta ekimenak ezagutuko dituzte.
- Euskarazko komunikazio produktuetan androzentrismoaren aztarnak identifikatzeko gai izango dira.
- Euren eguneroko bizitzan somatzen dituzten zailtasunak, zalantzak eta erronkak partekatuko dituzte eta gainerako partaideei ere laguntza emango diete.

- Hizkuntzan ere historikoki baztertutako subjektuak ikusgai egitearen garrantziaz ohartuko dira; besteak beste, emakumeak, LGTBI pertsonak, aniztasun funtzionala duten pertsonak eta etorkinak edota arrazalizatuko subjektuak.

## 6. DENBORA BANAKETA:

Guztira kreditu 1eko ikastaroa izango da (25 ordu). Hiru astez gauzatuko da; beraz, batz bestea, astero 8 eta 9 ordu arteko lan zama aurreikusten da.

## 7. METODOLOGIA:

Ikastaro honek androzentrismoaren ulerpen sakonagoa izateko balio dezan nahi dugu, baina aldi berean eguneroko bizitzan finkatzeko ezagutzak ere partekatu nahi ditugu. Beraz, metodologia teoriko-praktikoa izango da eta, batez ere, parte hartzailea.

- Unitate teorikoetan euskal kulturako hainbat pertsonen ekarpenak bilduko ditugu eta ikus-entzunezko baliabideak eskainiko ditugu.
- Atazek norberaren bizitzara bideratzeko aukera emango dute, parte hartzaileen behar anitzak kontutan hartuz.
- Foro birtuala ezinbestekoa izango da, eta parte hartzaileek euren zalantzak, ezagutzak eta estrategiak partekatzeko dinamizatuko da.

## 8. EBALUAZIOA:

Ebaluaziorako hurrengo osagaiak izango ditu kontutan:

- Partaideek euren abiapuntua eta aurrerapenak islatuko dituzte.
- Partaideek egindako lanak zuzenduko dira.
- Foroan egindako ekarpenak baloratuko dira.

Kalifikazio-irizpideak:

- Plataformara sarrera: %10
- Atazak: %30
- Autoebaluaketa galdetegia: %30
- Foroan partaidetza: %30

Gainditzeko irizpideak:

- Gutxienez bi gaietako atazak egin izana.
- Ezagutzetan aurreratu izana frogatzea, autoebaluaketa testaren bidez.
- Foroan gutxienez hiru aldiz parte hartzea.